

BCC fundazioak eta sukaldarien Euro-Toques España elkarteak prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuko dituzte

2009/10/21

2011n, Euskadik estatuko gastronomia-zientzien lehen fakultatea — Europako bigarrena— izango du. Bertan, gastronomiaren eta elikagaien zientziaren inguruan ikertzeko eta berritzeko zentro bat izango da. *Basque Culinary Center* fundazioak, Mondragon Unibertsitatearen, nazioarteko ospea duten sukaldarien eta erakunde publikoen babesarekin, nazioarteko erreferente bihurtu nahi du Euskadi, gastronomiako zientzien inguruan prestakuntza, ikerketa, berrikuntza eta ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia sustatzeko.

Hori lortzeko, baina, hainbat osagai behar dira. Beste eragile batzuekin proiektuak bideratzeko lankidetzaren linea bat garatzea da bat. Eta horri erantzun gura dio, hain zuzen ere, gaur *Basque Culinary Center* fundazioaren eta Euro-Toques España sukaldari-elkartearen artean sinatutako akordioak. Alegia, BCulinary fundazioko zuzendari eta Mondragon Unibertsitateko errektoreorde Joxe Mari Aizegak eta Euro-Toques Españako lehendakari Pedro Subijana sukaldariak hitzarmena sinatu dute gaur, datozen bost urteetarako, gastronomiaren eta elikagaien teknologiaren alorreko prestakuntzaren, ikerketaren eta berrikuntzaren inguruko jarduerak sustatu eta bideratzeko.

Hitzarmen horren bidez, ikerketako eta garapeneko (I+Gko) azterketak, proiektuak eta programak taxutuko dituzte, bi aldeei interesatzen zaizkien zientziaren sailetan. Halaber, gastronomiaren, elikaduraren eta nutrizioaren arloetan elkar aholkatzeaz gain, informazioa trukatu dute, lan-taldeak sortzearen edo txostenak egitearen bidez. Bestalde, jardunaldi profesionalen antolamenduan eta prestakuntza-programetan lankidetzan jardutea ere ezartzen du hitzarmenak. Hortaz, Euro-Toques Españako 800dik gora elkartekideen prestakuntza-beharren diagnostikoa egiten lagunduko du BCulinary fundazioak, bai eta behar horiek asetzeko prestakuntza-jarduerak abian jartzen ere. Gizarte-sustapenarekin eta gastronomiarekin zerikusia duten baterako jarduerak antolatu eta bideratzea ere azpimarratzen du akordioak.

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Spainian ez dago unibertsitate mailako prestakuntza-eskaintza ofizialik, gastronomiaren alorrean. Ondorioz, prestakuntza-hutsune handia dago sukaldaritzaren eremu profesionalean, eta gaitasun sakonagoak izango dituzten profil gaituagoak prestatzea komeni da, beste eremu profesional batzuetan egin den moduan. Mondragon Unibertsitatearen Sukaldaritza Artei buruzko Graduak beteko du hutsune hori, Europako goi-mailako irakaskuntzaren esparrura egokitutako titulazioaren bidez. Graduak ikasketek lau ezagutza-arlo nagusi landuko dituzte: sukaldeko, jangelako eta sommelier-jardueretarako teknikak, negozioaren kudeaketa, zientzia eta teknologia, eta kultura eta artea. Fakultatearen jardura hiru prestakuntza-arlo handiren inguruan gauzatuko da; hona hemen: 1) sukaldaritza-artei buruzko gradua, lau urteko iraupeneko unibertsitate-titulua ofiziala, sukaldaritza eta jangela, negozioaren kudeaketa, zientzia eta teknologia, eta kultura eta artea landuko dituena; 2) sukaldeko profesionalen taldea gastronomiaren beste sektore batzuetako profesionalen taldeetik bereiziko dituzten gradu-ondoak; eta 3) etengabeko prestakuntza.

Beste alde batetik, I+G+b zentroaren helburua hauxe izango da: ikerketa eta ezagutzaren transferentzia sustatzea, goi-sukaldaritzako profesionalen eta gastronomiarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten enpresa- eta ezagutza-sektoreen artean, eta horien artean sinergiak sortzea.

Basque Culinary fundazioaren patronatuan, partaide hauek ditugu: aktiboki jardun duten Juan Mari Arzak, Martin Berasategi, Pedro Subijana, Karlos Argiñano, Andoni Luis Aduriz, Hilario Arbelaitz eta



Eneko Atxa sukaldariak, eta Mondragon Unibertsitateko errektore losu Zabala. Fundazioko kide izango dira, halaber, proiektua babesten duten eta hasiera-hasieratik laguntza eta konfiantza eskaini duten erakundeak, horien artean, Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren bitartez, baita Espainiako Gobernua ere. Halaber, elikaduraren sektoreko enpresak ere Patronatuan sartzea aurreikusten da.

Euro-Toques España

Euro-Toques nazioarteko erakundea duela 23 urte sortu zen, eta 18 herrialdetako 3.500 sukaldari baino gehiagok osatzen dute; Espainian 800 sukaldari daude erakundean. Hona hemen Euro-Toques Españaren helburuak: elikagaien kalitatea eta zaporea babestea; elikaduraren alorreko artisauen artea sustatzea; Europako sukaldarien arteko trukeak ahalbidetzea; Europako sukaldaritze-ondarearen aniztasuna eta jatorria babestea; elikadura osasungarriaren segurtasuna defendatzea eta konbinazio naturalak ahalbidetzea; eta etiketatze egokia exijitzea, kontsumitzaileei irizpide onez hautatzeko aukera emango dien informazio argia eskaintzeko. Horrela, bada, besteak beste, helburu hauek nabarmendu behar ditugu: elikagaien kalitatea babestea, Europako sukaldarien arteko elkartrukea ahalbidetzea, Europako sukaldaritze-ondarea zaintzea eta elikadura osasungarria defendatzea.